

zuzendariari

(0034) 943 300 222

OHARRA: Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NAREN zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko.



zuzendariari@egunkaria.com



Gudarien etorbidea, z/g 20140 Andoain

Euroa eta kulturak

Maider Elortegi • MUNGIA

Euroaren kontua joko bat bezala sartu da gizartean, hainbat esamolde entzun dira honi buruz: «txokolate txanponak»... Egia esateko, eroso da Europatik bidaiatzeko diru aldaketaren arazoa ez izatea. Urte berria hasita, euroaren eskaria espero zen baino handiagoa dela nabarmendu da, gizarteak arazo gabe onartu duela. Europako Batasuna inoiz baino indartsuago dago, bateratze politiko honek bide egokia hartu duelako batasuneko agintarien us-tean. Baina benetan badakigu zer dakartzan euroaren kontu honek gizartean?

Gai honen azpian hainbat gertakari sortzen ari dira gu oharkabe. Europaren batzeak eremuak zabaldu egingo ditu, kapi-

talismo eta komertzialismo kutsuak kultur eraiki bat sortu, eta guk, gizarteak, onartu egingo dugu. Europa enpresa kontzentrazio bat da, non kontrolpean egonez garapenak eskaintzen dituen; boterea gutxi batzuen eskuetan dago, non aberatsak aberatsagoak egiten diren gure kontura.

Euskal Herrian geldiune bat eginez, hermengo kultura, hizkuntza, ohiturak... kanpoko kultur masibo zabalak, globalak, estali egingo ditu, indar politikoa dela-eta, kultur aniztasunaren ideia baztertuz. Europako Batasunaren barruan Espainia bezala aurkeztuta gaude, eta Espainian gero eta zapalduago. Hizkuntzak muga geografikoak markatzen ditu; gurea euskara izanik, Europako Batasunaren hurrengo pausoa zein izango da, hizkuntza bakarra suspertzea denok ulertzeko?

Eusko Jaurlaritzak aholkuak salgai...

Jose Luis Orokieta (*Irakasle ordezkoa*)

Baina norberarentzat, jai, jai. Horrela defini dezakegu Hezkuntza sailburu Iztueta andarearen jokaera.

Kontzertuaren gaiaren aurrean Eusko Jaurlaritzaren desadostasuna nabarmen geratu zen Ibarretxek emandako prentsaurrean. Espainiarrek erabakiak akordioaren bitartez hartu beharrean unilateralki hartzen dituztelako. Badirudi Montoro jaunaren jokaera gustatu zaiola Hezkuntza sailburuari, eta irakasle ordezkoei mesede egitearren oposizioa egingo du langileen ordezkariekin ezer hitzartu bari, hau da, unilateralki. Irakasle ordezkok administrazioak txarto tratatuak senti-

tzen garela esaten badut, seguru nago kolektiboaren gehiengoaren iritzia islatzen ari naizela, eta orain oposizioaren gaiarekin, berriro ere txarto tratatuta edo kontuan ez hartuta. Argi dago administrazioak inorekin kontatu gabe bere lan eskaintza egiteko ahalmena daukala, baina, langileen iritzia kontuan harturik, gauzak modu egokiagoz eta eraginkorragoz egiten dira. Oposizioa aurrera eraman baino lehenago langileen ordezkariekin adostasuna lortzeko eskatzen diot Hezkuntza Sailari, eta hori horrela izan dadin behar diren ahaleginak egingo ditugu.

Zuzenketa: Joan den ostegunean 3. orrian kaleratu genuen *Artzapezpikuaren gogoetak* artikulua Jose Maria Alemanek sinatua agertu zen, baina Mendialdeko beste 24 apaizek ere izenpetua zela erantsi behar zitzaion.

montxo



galdeiozu... ?



Gaztelaniazko lanetan ikusi zaitugu batik bat. Euskaraz lan egiteko asmoa baduzu?

Joseba Martinez (Bilbo)

Bai, badaukat, eta ez da oso urruneko proiektua. Ez dut inoiz euskaraz lanik egin, ez nahi ez dudalako, baizik eta gaur arte ez dudalako euskarazko proiektu interesgarri-rik esku artean eduki.

UNAX UGALDE

Aktorea

hirusta

Koldo Almandoz



Eskaletibistak

Dirudunak, osasun hobia izateaz gain, zoriontsuagoak dira. Eta zientifikoki frogaturiko baieztapena da. Ingalaterran egin dute ikerketa. 9.000 gizon eta emakume erabili dituzte laborategi akuri gisa, eta emaitzek hala diote: aberatsak pobreak baino zoriontsuagoak dira. Eta salbuespenak salbuespen, kontrakoa diotenek hobe dute guztia utzi, eta kulebroietako gidoiak idazten hastea. Bestetik, munduko gizaki miserableenak behar dutenak etorri zaizkit burura: herrialde aberatsetan bizi diren eskaleak. Eskale lana, gogorra izateaz gain, nekez da esker onekoa. Eta hala eta guztiz ere, badira euren lanaz ismo bat egiten dutenak.

—Italiako Vicenza hiriko kaleetan lan egiten duen eskale errumaniar batek, lepotik zintzilik daraman kartelean, zentimo bat eta biko euroak ez dituela jasotzen abisatzen die bere bezeroei.

—New York-en, Times Square inguruan zebilen beltz baten kartelak honela zioen: «*for pot and*

hookers..hey at least I'm not bullshitting you!» («beldarra eta putentzako... hey gutxienez ez nabil zuri iruzur egin nahian».

—Bilboko Capitol zinemetan, tipo batek zinemara joateko dirua eskatzen die bertan iladan daudenei.

—Donostiako autobus geltokian, egunero, *Estella*-ra joateko duro pareta eskatzen duena ere bada. Eta guztiok dakigu autobusa hartu beharrean zaldiz joaten dela Lizarrara.

Gizakia jaiotzetik da eskale. Gero, aberastu eta batzuk existentzialistak egiten gara, beste batzuk espektatibistak, eta bada iraultzaile egiten denik ere. Lehen aipatutako eskaleek, ordea, ismo garaiago bat dira. Eskaletibismoa. Ismoa aukeratu ez badute ere, ohore egiten diotelako euren aktibitateari. Nire lagun baten alabak dioten moduan, «zakur guztiak dira eskaleen lagunak», eta hori ez da sekula seinale txarra izan. Eskaletibistei beti eman behar zaie. Amen.

Urtarrilaren 15etik aurrera **Iñaki Arratibel • kirol medikua** izango da Galdeiozu ataleko gonbidatua. Bidali zure galderak ordurako.